



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/11/10

Aldundiak 600.000 euro bideratuko ditu 2018an Gaztelugatxen hobekuntzak egiteko beharretara

Bizkaiko Foru Aldundiak bere aurrekontuko “600.000 euro” erreserbako ditu datorren urtean Gaztelugatxeko San Joan inguruak hobetzeko beharrak hasteko. Partida hori, gaur Elena Unzueta arduradunak azaldu dituan Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko sailaren aurrekontuen barruan jasoten da. Diputatu andreak iragarri dauenez, “urte hau bukatu aurretik”, kanpoko enpresa bat “babestutako biotopo horren erabilera turistiko iraunkorra bermatzeko” egiten dabilen Jarduketarako Plan Integrala bere eskuetan eukiko dau Foru erakundeak. Ekintzak azterlan hori bukatu eta gero ezagutuko dira, eta Eusko Jaurlaritzagaz eta inguruko udalakaz, eragileakaz eta alkarteakaz adostuko dira.

Aldundiko bozeroaleak zuzentzen dauen sailak 89.045.000 euro izango ditu datorren urtean, “nekazaritza arloko ekoizleei emoten jaken laguntzeagaz jarraitzeko eta ur horniduraren eta saneamenduaren kalidadea eta hondakinen kudeaketa hobea bermatzen daberen azpiegiturak sortzearen aldeko apustua egiteko”.

Jarduketarako ildo nagusien artean, Unzuetak, beste ezer baino lehen, Nekazaritza zuzendaritzan jasoten diran lehen sektorerako laguntzetara bideratuko diran 21,2 milioi euroak azpimarratu ditu. Atal horrek “ia ez dau aldaketarik izango” 2017ko ekitaldiagaz alderatuta.

Beste helburu nagusietako bat ingurumen arloko azpiegituren garapena da, eta 53,3 milioi bideratuko dira horretara. Kopuru horretatik, 30 milioi Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari egingo jakon ekarpenaren barruan dagoz, bere egunean esparru akordioan jaso ziranak baino “bost milioi gitxiago”, inbertsinoa “benetako beharretara egokitu” dalako. 2018rako beharren artean Munitibarko EDAR izenekoaren eraikuntza eta Boluetan egongo dan Ibaizabal errekararen uren tratamendu entseguetarako planta pilotua dagoz.

Batzarretako taldeek egindako erantzun-eskeei erantzunez, Aldundiak bosgarren edukiontzia zabaltzeko egingo dauen esfortzua aitatu dau Unzuetak. 2017. urtean egin eban moduan, bere sailak “milioi bat euroko” partidea erreserbau dau, aurtun Udalek aurrekontuetan jasotakoaren “erdia” baino gastau ez daberen arren. Kopuru hori justifiketako orduan, diputatu andreak esan dau Bizkaiak hobetu egin behar dauela materia organikoaren birziklapen tasea, oraindino Europak marketan dauenaren azpitik dagon parametroetako bat da-eta.

Unzuetak bere sailaren gaur egungo kudeaketea marketan daberen beste gai batzuk be aitatu ditu, hondartzen kudeaketea (5,7 milioi euro), hobekuntza informatikoak (3,7 milioi) edo suteen prebentzioa eta itzalketea (637.000 euro). Ingurumen zuzendaritzan dagozan barrikuntzen artean, zarataren eta hots kalidadearen gaineko ekintza plan bat azpimarratu behar da. Plan horretan prebentzinorako eta sentsibilizaziorako hainbat ekimen jasoten dira (30.000 euro).

BARDINTASUN ARLOKO POLITIKEN AURREKONTUAK %14,62 EGINGO DAU GORA

Horren ostean, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasunerako diputatuak Ekonomia eta Ogasuneko azkenengo batzordean azaldu dauenez, bere sailak izango dauen



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

diru-kopurua 51.338.000 eurokoa izango da, beharginen atala alde batera itzita. Horrek %2,62ko igoera erakusten dau 2017 honetako zifrakaz alderatuta. Partida horri esker “enpleguaren, alkartasunaren, gizarte kohesinoaren eta bardintasunaren aldeko apustuari eutsi ahal izango jako”.

2018. urtean azpimarragarria izango da bardintasunaren arlora bideratuko dan gastuaren hazkundera, %14,62 handituko dalako, 988.000 eurora heldu arte. Horren barruan, oraindino Batzar Nagusietan onetsi barik dagon Bardintasunerako Foru Arauaren garapena aipatu behar da. 200.000 euro bideratu dira horretara.

Enplegurako eta Ekintzaitzarako programan “proba pilotu” bat egingo dala be azpimarratu dau Laespadak, Aldundiaren kontuetan genero ikuspegia sartu daiten lehenengo aldiz. Foru erakundeak “eskumen arloko mailarengaitik, gizartean daukan eraginarengaitik eta aldaketarako palankea izateagaitik” aukeratu dau programa hori, Laespadak adierazo dauenez. Bere berbetan, ekimen hori, “enpleguaren arloan, emakumeen eta gizonen bardintasunari jagokonez, egiten dogunaren argazkitik, benetako bardintasuna lortzeko egin behar dogunera” doan bidea egitea da, azken finean.

Aurrekontuak Enplegu eta Ogasun sailetakoko beharginek osatu daben batzorde teknikoaren bitartez prestatuz egin dan aldaketak helburu nagusi bi izan ditu, “enplegurako gaiztasun bereziak dituen emakumeak gaitzea, eta emakumeen eta gizonen arteko bardintasunaren aldeko proiektu barritzaileak aurrera eroatea”, hain zuzen be.

Batzarretako taldeei emondako azalpenean, Laespadak genero eraginaren aurretiazko ebaluazinarako txostenak be azpimarratu ditu. Behar hori 2014an hasi zan, “54” ekintzagaz, eta, une honetan, Aldundiko aurrekontuan “7,3 milioi euroko” eragina daben “275” ekintza dagoz martxan. Laespadaren eretxiz, ekintza horreek, Gobernu ekintzan “gizonen eta emakumeen artean dagozan desbardintasunak zuzentzeko balio dabe”.

2018. urteak beste barrikuntza garrantzitsu bat be ekarriko dau, Aldundiaren tutelatik urtengo daben hogeta hamar gaztegaz hasiko dan “proba pilotua”, hain zuzen be, “emanzipazinarako eta bizimodu independentea eroateko egin behar daben bidean laguntzeko”. 275.000 euro bideratuko dira horretara. Gizarteratze arloko barrikuntzen artean, Laespadak Getxo-Uriben sortuko dan eguneko zentroa eta bazterketa arriskuan dagozan pertsonakaz esku hartzeko eskuliburua egitea be aitatu ditu.

Bere ekarpenak gora egingo dauela ikusiko dauen beste partida bat Garapenerako Lankidetzara zuzendutakoa izango da, %3,71 egingo dauelako gora, 5.594.000 eurora heldu arte.

Gainera, Eusko Jaurlaritzagaz batera, Aldundiak enpleguaren eta gizarte eta ekonomia arloko politiken inguruko ikerketarako zentro baten sorkuntzan hartuko dau parte. Aldundiak 50.000 euro jarriko ditu, aurretiazko azterlana egiteko.

ZUZENKETA ESKEAK

Aurrekontuen Proiektuaren inguruko informazino saioak bukatu eta gero, Bizkaiko Batzarretako Mahaiak zuzenketa-eskeak aurkezteko epealdia ezarriko dau (15 eguneko). Zuzenketa-eskeak aztertu ostean, Gernikan egingo dan lehenengo osoko batzarra deituko da, testu osoaren aurrean aurkeztu diran zuzenketa-eskeak eztabaidatzeko. Osoko batzar horren ostean, eta beharrezkoa



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

bada, zuzenketa-eske partzialak eztabaidatuko dira batzordean. Bizkaiko kontuen Batzarretako izapidetzea abenduaren bukaeran amaituko litzateke, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordetik igaro ostean geratzen diran zuzenketa-eske partzialak aztertuko dituan beste osoko batzar bategaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
10/11/2017

La Diputación destinará 600.000 euros en 2018 para iniciar las obras de mejora de Gaztelugatxe

La Diputación foral de Bizkaia reservará el año próximo “600.000 euros” de su presupuesto para iniciar las acciones de mejora del entorno de San Juan de Gaztelugatxe. La partida se incluye en los presupuestos del departamento de Sostenibilidad y Medio Natural que han sido desglosados hoy por su responsable, Elena Unzueta. La diputada ha anunciado que “antes de que acabe este año”, la institución foral dispondrá ya del Plan Integral de Actuación que una empresa externa está realizando “para garantizar un uso turístico sostenible de este biotopo protegido”. Las acciones se conocerán tras la finalización de este análisis y serán consensuadas con Gobierno vasco, ayuntamientos afectados, y agentes y asociaciones de la zona.

El área que dirige la portavoz de la Diputación contará el año próximo con 89.045.000 euros para “mantener el apoyo a los productores del sector agrario y apostar por generar infraestructuras que garanticen la calidad del abastecimiento del agua y el saneamiento, y la mejora en la gestión de los residuos.”

Entre las principales líneas de actuación, Unzueta ha destacado, en primer lugar, el destino de 21,2 millones de euros a ayudas dirigidas al primer sector que están incluidas en la dirección de Agricultura que “apenas sufrirá variaciones” en sus cuentas respecto al presupuesto de 2017.

Otro de los grandes objetivos es el desarrollo de infraestructuras ambientales, que está dotado con 53,3 millones de euros. De ellos, 30 millones se incluyen dentro de la aportación al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, “cinco millones menos” de los que se preveían en su día en el acuerdo marco, debido a la “adaptación” de la inversión “a las necesidades reales”. Entre los trabajos para 2018, se encuentran la construcción de la EDAR de Munitibar y la planta piloto para ensayos de tratamiento de aguas del río Nervión en Bolueta.

A preguntas de los grupos junteros, Unzueta se ha referido al esfuerzo que la Diputación hará para extender el quinto contenedor. Su departamento volverá a reservar, como en 2017, una partida de “un millón de euros” pese a que este año los ayuntamientos sólo han gastado “la mitad” de lo que se presupuestó. La diputada ha justificado la misma cuantía por entender que Bizkaia tiene que mejorar las tasas de reciclaje de materia orgánica, uno de los parámetros que están todavía por debajo de lo que marca Europa.

Unzueta se ha referido a otras cuestiones que marcan la gestión anual de su departamento, como la gestión de las playas (5,7 millones de euros), mejoras informáticas (3,7 millones), o la prevención y extinción de incendios (637.000 euros). Entre las novedades en la dirección de Medio Ambiente, destaca un plan de acción sobre el ruido y la calidad sonora que incluye diferentes iniciativas de prevención y sensibilización (30.000 euros).

EL PRESUPUESTO EN POLÍTICAS DE IGUALDAD SUBE UN 14,62%



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

A continuación, la diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada ha explicado en la última comisión de Economía y Hacienda para detallar los presupuestos, el disponible departamental que, en su caso, alcanzará los 51.338.000 euros sin el capítulo de personal. Esto supone una subida del 2,62% respecto a las cifras de este año 2017. La partida servirá, según ella, para “mantener la apuesta por el empleo, la solidaridad, la cohesión social y la igualdad.”

El año 2018 destacará por el incremento del gasto en materia de Igualdad, ya que se prevé un aumento del 14,62% hasta alcanzar los 988.000 euros. En su haber, destaca el desarrollo de la Norma Foral de Igualdad, aún por aprobar en Juntas Generales, para la que se ha reservado un montante de 200.000 euros.

Laespada ha hecho hincapié también en la realización de una “prueba piloto” en el programa de Empleo y Emprendimiento para que se incluyan por primera vez en las cuentas de la Diputación la perspectiva de género. La institución foral ha elegido este programa “por su nivel competencial, por su impacto en la sociedad y por ser palanca de cambio”, ha señalado Laespada. Esta iniciativa supone transitar, según ella, “desde la fotografía de lo que hacemos en materia de empleo con afección a la igualdad de mujeres y hombres hacia lo que, en definitiva, tenemos que hacer para el logro de la igualdad real”.

Este giro a la hora de elaborar los presupuestos a través de una comisión técnica formada por personal de Empleo y Hacienda, ha tenido dos objetivos fundamentales, como son “la capacitación de mujeres con especiales dificultades para el empleo y el desarrollo de proyectos innovadores en favor de la igualdad entre mujeres y hombres”.

En su explicación a los grupos junteros, Laespada ha destacado también los informes de evaluación previa de impacto de género, trabajo que se inició en el año 2014 con “54” acciones, y que, en estos momentos, acumulan “275” acciones que impactan en el presupuesto de la Diputación por un importe de “7,3 millones de euros”. Para Laespada estas acciones “sirven para corregir las desigualdades entre hombres y mujeres” en la acción de Gobierno.

El año 2018 traerá otra novedad importante como es el inicio de un “programa piloto” con una treintena de jóvenes que salen de la tutela foral, “para ayudarles en el tránsito hacia la emancipación y a lograr una vida independiente” para lo cual se destinarán 275.000 euros. Entre las novedades en materia de inclusión social, Laespada se ha referido también a la creación de un centro de día en Getxo-Urbe y la elaboración de un manual de intervención con personas en riesgo de exclusión.

Una de las partidas que verán mejorada su aportación será la destinada a Cooperación al Desarrollo que sube un 3,71% hasta situarse en los 5.594.000 euros.

Además, junto con el Gobierno Vasco, la Diputación participará en la creación de un centro de investigación sobre empleo y políticas sociales y económicas. La institución foral aportará para un análisis previo la cantidad de 50.000 euros.

PLAZO DE ENMIENDAS



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Concluidas las sesiones informativas del Proyecto de Presupuestos, la Mesa del parlamento vizcaíno establecerá a partir de la semana próxima el periodo de presentación de enmiendas (15 días). Tras su análisis se convocará una primera sesión plenaria en Gernika para debatir las enmiendas a la totalidad. Después de este pleno, y llegado el caso, se debatirían las enmiendas parciales en comisión. Y el trámite parlamentario de las cuentas de Bizkaia finalizaría a finales de diciembre con un nuevo pleno, que analice las enmiendas parciales que queden tras su paso por la Comisión de Economía y Hacienda.